



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

BERDINTASUNAREN ALDE EGITEKO JOLASTOKIAREN ANTOLAKETA BERRIA

GRADU AMAIERAKO LANA



5. Genero berdintasuna

EGILEA: Angulo Elexpe, Ireder

ZUZENDARIA: Bizkarra Morales, Mariate.

2020/2021

LABURPENA

Lan hau Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologian oinarritu da eta horretarako ikastetxe batean indagatu zen jakiteko zer nolako beharrak zituzten, modu honetan, Ikastolako jolastokiaren antolaketa berri bat egitea izan da helburuetako bat, betiere mutil eta nesken arteko berdintasunaren, inklusioaren alde lan eginez.

Hori aurrera eramateko beharrezkoa izan dugu ikastolaren laguntza, bertan parte hartu duten ikasle, irakasle edota zuzendaritza taldearena hain zuzen ere. 2 astetan zehar burutu den zerbitzua 5 eta 6.mailako ikasleen patioa antolaketa berri batean oinarritu da. 64 ikaslerentzako, hain zuzen ere 5.mailako 36 ikasle eta 6.mailako 28 neska eta mutil. Informazioa eskuratzeko tresna desberdinak erabili dira, egunerokoa eta behaketa besteak beste. Horretaz gain, aste bakoitzaren bukaeran ebaluazio bat pasatu zaie ikasleei hobekuntzak egite aldera, baina baita ere informazio baliagarri bat eskuratu ahal izateko.

Jolas tokiaren espazio 6 gunetan banatu zen eta ikusi ahal izan genuen bezala, gehien erabili zen espazioa frontoia izan zen eta lortu genuen neska eta mutilek gunek berdinetan jolasteko aukera izatea, hau da, jolas leskuko espazioaren banaketa ikasleen artean parekatua egotea, besteak beste. Horrez gain ondorioztatu dugu ikasle batzuek berdintasunaren kontzeptua oso barneratuta dutela, baina badaudela beste batzuk oraindik ez direnak desberdintasunaz konturatzen.

HITZ-GAKOAK: Ikaskuntza-zerbitzua, jolastokia / patioa, berdintasuna, inklusioa, emakumea.

RESUMEN

Este trabajo se ha basado en la metodología al servicio del Aprendizaje y para ello hemos investigado un centro concreto y sus necesidades. De esta forma, uno de los objetivos ha sido diseñar una nueva organización del patio, siempre teniendo en cuenta la inclusión y la igualdad entre chicos y chicas. El espacio del patio se dividió en 6 zonas y, como pudimos comprobar, el más utilizado fue el frontón. Conseguimos que tanto chicos como chicas tuvieran la oportunidad de jugar en los mismos espacios; esto es, que hubiera un reparto equilibrado del espacio. Además, hemos confirmado el hecho de que algunos alumnos y

alumnas tienen el concepto de igualdad bien asumido mientras que otros y otras todavía no se dan cuenta de las diferencias.

Para llevar a cabo el proyecto ha sido imprescindible la colaboración tanto del alumnado del centro que ha tomado parte en el mismo como del profesorado y la Dirección. El proyecto se ha centrado en una nueva organización del patio para alumnado de 5º y 6º de Educación Primaria; 64 alumnos y alumnas, más concretamente, 36 chicos y chicas de 5º y 28 de 6º.

Hemos utilizado diferentes herramientas para la recogida de información, como la observación y el día a día, entre otras. Además, al finalizar cada semana hemos entregado una hoja de evaluación al alumnado, tanto para recoger propuestas de mejora como para conseguir valiosa información.

PALABRAS CLAVE: Servicio de aprendizaje, patio, igualdad, inclusión, mujer.

ABSTRACT

This work has been based on methodology at the service of learning and in order to do so I have researched a school and its needs within this field. Therefore, one of our goals when designing this investigation project was to offer a brand new organization of the playground, bearing in mind both the inclusion and gender equality. The playground space was divided into 6 areas and, as expected, the most popular one was the pelota court. We managed to provide both boys and girls with the same opportunities to play in all the areas; that is, they had a balanced distribution of the space. Besides, we have confirmed that whereas some of the students have internalised the concept of equality, some others do not realise the differences.

In order to achieve it, the cooperation of students, teachers and Management has been essential. The project has focused on a new playground offer for students of both 5th and 6th courses; 64 male and female students, 36 belonging to 5th course and 28 to 6th.

We have collected information through various tools including observation and daily activities, among others. Besides, at the end of each week we have handed out an

evaluation sheet so that students could include improvement proposals and also, in order to collect valuable information.

KEY WORDS: Learning service, playground, equality, inclusion, woman.

AURKIBIDEA

1.	Sarrera.....	6
2.	Marko teorikoa.....	7
2.1.	Ikaskuntza zerbitzua.....	7
2.2.	Emakumea kirolean eta GH-n.....	9
2.3.	Jolas orduak / Patioak.....	13
3.	Helburuak.....	17
4.	Metodoa.....	17
4.1.	Testuingurua.....	18
4.2.	Parte-hartzaileak.....	19
4.3.	Tresnak.....	19
4.4.	Prozedura.....	20
4.4.1.	Lanaren diseinua.....	24
4.4.1.1.	Arduren banaketa.....	29
4.4.1.2.	Jolas orduko arau orokorrak.....	30
4.5.	Analisia.....	30
5.	Emaitzak.....	31
5.1.	Espazioaren banaketa.....	31
5.2.	Jolas orduren antolaketa berria.....	33
5.3.	Guneen antolaketa.....	34
5.4.	Ikasleen proposamenak.....	35
5.5.	Nire autoebaluazioa.....	35
5.6.	Egunerokoaren sistema kategoriala.....	36
6.	Eztabaida eta ondorioak.....	37
6.1.	Helburuen lorpena.....	39
6.2.	Mugak eta hobekuntzarako proposamenak.....	39
6.3.	Azken hausnarketa.....	40
7.	Erreferantzia / Bibliografia.....	42
8.	Eranskinak.....	46
8.1.	Eranskinak 1.....	46
8.2.	Eranskinak 2.....	46
8.3.	Eranskinak 3.....	47
8.4.	Eranskinak 4.....	48
8.5.	Eranskinak 5.....	49

1. SARRERA

Gaur egun, emakumeen egoera hobetzen dagoela ikusi daiteke, ikerketa desberdinak kontuan hartzen baditugu, baina horrek ez du esan nahi dena eginda dagoenik, guztiz kontrakoa, oraindik bide luzea dugu egiteko neska eta mutilen arteko berdintasun oso batera heltzeko. Horri tiraka ibili ondoren, gai hau, emakumeak kirolean duten eta izan duten presentziaz ikertzea gai polita izan zitekeela uste nuen.

Txikitatik izan naiz kirolaria, kirola maite izan dut, eta gaur egun ere nire egunerokotasunean oso presente dagoen alderdi bat da. Alderdi emozionalean asko laguntzen dit kirola egiteak besteak beste. Horretaz gain, emakumea izanik, gai interesgarri bat ere iruditzen zitzaidan lantzeko, eta gaur egun, esan bezala, pil-pilean dagoen gai bat denez, nire aletxo gehitzeko aukera paregabea zela ikusi nuen.

Horren harira, umeengandik, ikasleengandik, hasi behar gara berdintasun hori bermatzen, eta nahiz eta batzuetan ez konturatu, ikastola eta eskoletako jolas orduetan neska eta mutilen arteko desberdintasunak ematen dira. Beraz, etorkizuneko irakaslea izango naizen heinean, Lekeitioko R.M Azkue Ikastolan jolastokien berrantolaketa bat egitea proposatu zidaten, bertako egoera hobetzeko asmoz, eta ikasleei eta ikastolari berari ere, antolaketa berri bat eskaini diot.

Lan honetan hainbat gai jorratuko dira, lehenik eta behin, marko teoriko batekin topo egingo duzue, non lana ulertzeko eta errazteko baliagarriak diren gai desberdinen inguruan hitz egingo den: emakumeak kirolean izan duten eboluzioa, ikaskuntza zerbitzu bat zer den eta zertan oinarritzen den, jolas orduen inguruko eraldaketa... 3.kapituluan, lanean zehar landuko diren helburuen inguruan hitz egingo da. Segidan, metodologiari buruz hitz egiten da, non testuingurua azaltzen den, parte hartzaileak nortzuk izan diren...; eta zerbitzua egiteko jarraitu beharreko prozesua ere azaltzen da bertan. 5.kapituluan, lortutako informazioaz baliatuz, ateratako emaitzen inguruko analisisa egongo da. Lanarekin bukatzen joateko, ondorio eta eztabaidarako tarte bat ere egongo da, eta horretaz gain lanean zehar izandako mugen eta hobekuntzen inguruan erre hitz egingo da.

Zerbitzu hau egitearen ideia R.M Azkueko Aitor irakaslearen ideai izan da, non jolas orduko antolaketan gabeziak ikusten zituen eta zerbitzua egiteko gune aproposa izan zitekeela ikusi zuen, beraz, ideia buruan genuela beste irakasle eta zuzendaritzarekin harremanetan jarri eta lanari ekin genion.

2. MARKO TEORIKOA

Gaur egun, gizartea oraindik ere genero desberdintasun handia jasaten ari da, nahiz eta egia den aurrerapausu handiak egin direla azken hamarkadetan. Marko teoriko honen bitartez, aurrerapausu hori nola eman den ikusteko aukera izango dugu, bertan jasan izan diren egoera desberdinak ere ikusita. Horrekin batera, historian zehar emakumeak kirol munduan izandako eboluzioa ere ikusiko dugu... Beste hainbat asperturekin batera... Horretaz gain, ikaskuntza zerbitzua zer den ere azaltzea ezinbestekoa da, lana ikaskuntza zerbitzuan oinarritua egongo delako, eta nola ez erabilitako metodologiaz hitz egitea ere garrantzitsua izango da.

2.1. Ikaskuntza zerbitzua

Marko teorikoari hasiera emateko ikaskuntza zerbitzua zer den aztertzen hasiko naiz, hainbat azalpen ematen.

Dominguezek (2014) esaten duen bezala, gizarteak aldaketa asko jasan izan ditu azken urtetan, eta horren ondorioz gizartean dauden desberdintasun asko geroz eta handiagoak izaten ari dira. Desberdintasun horietako baten inguruan hitz egingo dugu lan honetan zehar hain zuzen ere, “emakumea kirolean”, besteak beste, historian zehar emakumeek kirolean zein jarduera fisikoan izan duten presentzia murrizta izan du eta honek eragin zuzena izan du ikastetxeetako patioetan, hain zuzen ere jolas orduetan gizonezkoek espazioaren zati handiena bereganatu izan dute edota nesken parte hartzea oso txikia izan da; baina hori gerorako utziko dugu.

Desberdintasun hauek murrizteko eta gizartea eraldatzeko ikaskuntza zerbitzua dago, zein metodologia alternatibo gisa agertzen den. Ikaskuntza zerbitzua gaur egun irakasle zein ikasleek, ikasteko edota irakasteko metodo berritzaile bezala ezagutua da. Honi esker gizartean dauden gai desberdinen inguruan hausnartzeko, ikasteko, eta gure arduraz ohartarazteko baliagarria da. Aranburuzabalak et al. (2015) esan bezala ikaskuntza zerbitzuaren helburu nagusietakoa hiritarrak hezte da, eta hiritar horiek gizartea birmoldatzeko gai izan beharko liriateke, eta modu horretan, gizartean sortu daitezkeen gatazkei aurre egiteko gai izan behar dira. Ikaskuntza zerbitzuari esker ikasleek gizartean

eragiteko aukera dute, hau da, bertan dauden desberdintasunen berri izango dute eta hauei erantzun bat emateko gai izango dira.

Ikaskuntza-zerbitzuari esker, gizarteko desberdintasunak murrizteko eta desberdintasunen inguruan hausnarketa kritikoa egiteko baliagarria izan daiteke, askotan hausnarketa hau ematen den aldaketa baino garrantzitsuagoa izaten da, ikasleak ikasten dabiltzan bitartean gizartean hobetzeko aukera ere izango dute. Irakasleek ez dute soilik curriculumak kontuan izan behar, gizartean gertatzen diren aldaketak kontuan izatea ere ezinbestekoa da, eta gizartea eraldatzeko gai izango diren herritarrak sortzea beharrezkoa izango da (Batlle, 2013) .

Alde batetik ikaskuntza eta bestetik zerbitzua kontuan izan behar ditugu, batetik (ikaskuntza) gaitasunak, konpetentziak eta jarrera izango ditugu; eta bestetik (zerbitzua), gizartean modu aktiboan parte hartzeko aukera izango baitugu (García et al., 2012). Rubiok (2007) ondo adierazi bezala:

- Ikaskuntza, zerbitzua hobetzen ahalegintzen da, aurrera eramaten diren ekintzak kalitatezkoak izan daitezela ahalbidetuz.
- Zerbitzuak aldiz, ikaskuntza hobetzen du, egiten den hori zergatik egiten den adieraziz.

Ikusi daitezkeen bezala, bata zein bestea beharrezkoak dira, eta bata bestean eragiten dute, hau da, esan bezala, ikaskuntzak zerbitzua hobetzen laguntzen du eta zerbitzuak ikaskuntza. Horrela bien arteko loturari esker ikaskuntza zerbitzu egoki bat lortuko da.

Gaur egun ikastetxe askotan “Zerbikas” izeneko ikasgaia dago, non ikasleek irakaslearen laguntzarekin gizartean aurkitzen dituzten beharrak asetzeko proposamen eta proiektu desberdinak aurrera eramaten dituzten, hau da, komunitatearentzako zerbitzua eta ikasketa batzen ditu, proiektu bat egiteko; ikasgai honetan, ikasleek ikasteaz gain, ingurune arazoak konpontzeko lan egiten dute. Adibidez, Lekeitioko Azkue ikastolan orain 6.mailako ikasleek zerbikas ikasgai birziklaketa lantzen dabiltza; birziklaketa bultzatzeko egin daitezkeen jokabide desberdinak landuz, besteak beste. Bertan, aurreko lerroetan esan bezala, kurikulumak kontuan izateaz gain gizartean dauden beharrak aztertzen dituzte, eta hauei nola aurre egin diezaieketen aztertzen dute (Mendia eta Moreno, 2010). Filosofia honekin bat egiteak erraztu du nire lana aurrera eramatea.

Tapiaren (2016) hitzetan, ikaskuntza zerbitzuak hiru ezaugarri izan behar ditu benetan ikaskuntza zerbitzua izateko: alde batetik, gizarteko beharrei benetan aurre egiteko asmoa edo benetan asetzeko nahia izatea, kasu honetan ikastolaren eskaria izan da jolas orduaren antolaketa berri bat egitea; bestetik, planteatzen den hori ikasleek beraiek sortua izatea ezinbestekoa da, kasu honetan, GrALeko ikasle izanda nik sortu dut proposamena; eta azkenik, curriculumarekin lotura izan behar du, eta Graduoko gaitasun profesionalekin zeikuski izan du.

Baina ezaugarri horietaz gain baditu beste hainbat ezaugarri kontuan hartu beharrekoak ere, horien artean honako hauek (Puig eta Palos, 2006) ditugu:

- Hezkuntza formalean edo informalean eman daiteke, eta edozein adinera zuzendu daiteke
- Ikasleen, kasu honetan nire, ikaskuntza eta parte hartze aktiboa bermatzen du, beraiek baitira prozesua sortzen dutenak eta guztiaren sortzaileak.
- Hausnarketa ezinbestekoa da.
- ...

2.2. Emakumearen presentzia eskasa kirolean eta GH-n

Emakumeak urte askotan, eta gaur egun oraindik ere, gizonekiko diskriminazio handiak jasan izan ditu. Ez bakarrik kirol arloan, gizartearen beste hainbat esparrutan ere eta desberdintasun horiek oso agerikoak izan dira.

Desberdintasun horien eragile nagusietako bat estereotipoak izan dira, eta gaur egun ere gure inguruan jarraitzen dute. Badaude estereotipo asko kirol munduan ere, non esan bezala desberdintasun ugari sortu izan diren hauen eraginez, hauetako bat hurrengo estereotipo hau izango litzateke: badaudela kirolak mutilentzat soilik direnak, eta badaude kirolak neskentzat soilik direnak (García eta Asins, 1994).

Hau ulertzeko ezinbestekoa da estereotipoak zer diren azaltzea. Estereotipoak aurreiritziekin eta diskriminazioarekin lotzen dira, eta gizartearen talde baten ezaugarrien inguruan sortzen diren sinismenak dira (González Gavaldón, 1999). Eta adibidez, kirolean eman den presentzia historian zehar begiratzen badugu...

Grezian, emakumeek guztiz debekatuta zuten kirola praktikatzea (Alfaro, 2004). Espartan aldiz, emakumeek kirol zehatz batzuetan parte hartzeko aukera zuten, lasterketak, borroka... Munduko beste herrialdeekin konparatuta, kasu hau ez ohikoa zen. Herrialde gehienetan kirol eta jarduera fisikoaren mundua ez zen nesketzat, eta aldiz, neskek parte hartzeko aukera zuten herrialdeetan, gizartean goi mailako emakumeak izan behar zuten.

Núñez eta Miguezen (2017) testuan irakurri daitekeen bezala, XVI. mendean atzera pausu bat eman zen, eta ordura arte lortu ziren aurrerapausuak eten egin ziren.

Barberok (1993) esan bezala, XIX. mendean oraindik ere emakumeen presentzia oso murrizta zen kirol munduan. Garai horretan zegoen bizitzeko filosofiaren eraginez, emakumeek ez zuten parte hartzeko aukerarik izan, eta baztertuak izaten ziren kasu gehienetan. Esan bezala, gizartean goi mailan kokatua zeuden emakumeak soilik egin zezaketen kirola, beste maila guztietako emakumeek guztiz debetakua zuten kirola praktikatzea.

Orokorrean betidanik, kirol mundua gizonezkoentzat izan dela esan ohi da, emakumeen parte hartzea alde batera utzita. Romeroren (2008) hitzak aintzat hartuta, Joko Olinpikoen sorrerara arte salto egin behar da gaur egungo kirola ulertzeko. 1896.urtean Joko Olinpiko modernoetan emakumeen presentzia guztiz debekatua zegoen, esaten zen ez zela naturala emakumeek kirola praktikatzea, lehen esan bezala, emakumearen betebeharra ama izatea, etxeko lanak egitea... baitziren, horrela esaten zuen Joko Olinpiarren sortzailea izan zen Barón Pierre de Coubertin. Parisen 1900.urtean jokaturako jokoetan lehenengo emakumeen presentzia ikusten hasi zen, baina kirol oso murriz eta zehatzetan, tenisa eta golfa izan ziren hain zuzen ere (Alfaro, 2004).

Kirolean emakumeen presentzia handitzen joan izan da urteak aurrera egin ahala, eta estereotipo, oztopo eta aurreriritzi batzuk apurtzen joan izan ziren arren, oraindik ere presentzia handia izaten jarraitzen zuten estereotipo hauek, batez ere, XX. mendearen hasieran. Baina frankismoa etorri zenean, XX. mendean, eta honek beste oztopo bat ekarri zuen emakumeek lortutakoarengan (Núñez eta Míguez 2017).

Esan bezala, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak askotarikoak izan dira urte askotan, eta gizarteko esparru desberdinetan, eskoletan, kirolean... eman dira. Eskoletan ere, frankismoaren garaian, neska eta mutilek ezin izaten zuten gela berdinetan ikasi, hau da, neskek nesken geletan eta mutilek mutilen geletan ikasten zuten, inoiz ez ziren gela mixtoak (Cuadrado, 1998). Gaur egun oraindik ere eskola mota hauek, eskola

segregatuak, gure artean jarraitzen dute, nahiz eta asko ez izan, adibidez, Ayalde eta Munabe eskolak Loiu; Gaztelueta eskola Leioan, baina aldi berean ohikoagoak direnak eskola mixtoak dira. XX. mendearen azken laurdenean eskola mixtoak sortzen dira, frankismoaren bukaerarekin batera eskola publiko zein kontzertuak sortu ziren. Eskola segregatutik mixtura pasatzerakoan gizonetzkoen curriculumean oinarritutako Gorputz Hezkuntza eredu sartu zen martxan.

Egoera hobetu den arren oraindik ere aspektu asko daude lantzeko eta hobetzeko. Vázquez Gómez (2002) hitzetan, gorputza erabiltzeko modua desberdina da gizon batentzat edo emakumen batentzat. Alde batetik, emakumearen gorputza "ikusia" izateko gorputz bat dela diote, hau da, emakumeak gorputz eder bat izan behar duela gizonaren gozamenerako. Horregatik emakume asko "edertasun" horretan murgilduak daude, gizonetzkoentzat ederrak izaten ahalegintzen baitira. Guzti horretaz gain, emakumeak umeak hezteko eta zaintzeko erabiliak izaten direla dio. Aldiz, gizonetzkoek ez dute horren guztiaren ardura edo kezkarik izan behar. Emakumeen edertasuna betebeharrak bat bihurtzen da (Duran, 1988).

Aurretik esandako guztiak asko oztopatu du emakumearen sarbidea kirol munduan. Esan den bezala emakumeen gorputzak gizonen plazerrera bideratuak daudenez, kirol munduan ez daude ondo ikusiak, bertan ez direlako edertasun horren barruan sartzen (Vázquez Gómez, 2002).

Gaur egun, XXI. mendean gauden honetan, Alfaroren (2004) hitzetan, oraindik ere ikusi daiteke alderdi askotan emakumeek oztopo asko dituztela goi mailara heltzeko, baina ez soilik kirol mailan, zuzendaritza postuetan baita ere argi eta garbi ikusi daiteke, soldatetan ere desberdintasuna handia da. Mercier eta Werther-ek (2001) proposatzen dute, neutralak diren egiturak sortzea, hau da, neska eta mutilen zuzendaritza lanetan parte hartzeko aukera berdina izatea, ahalik eta emakume gehien zuzendaritza taldean sartzea, aukera berdina izateko asmoz.

Historia alde batera utzita, eta kirol taldeetako zuzendaritzan zentratuta, argi eta garbi ikusi daiteke emakumeen presentzia oso murrizta dela kasu hauetan, zuzendaritza taldeko ehuneko handiena gizonetzkoek osatzen dute, eta emakumeek ehuneko oso txiki bat hartzen dute (Vázquez Gómez, 2002). Kirol munduan zailtasun eta oztopo handiak izan dituztela kontuan izanda, kezkarria dira zuzendaritza karguetara sartzeko izan dituzte oztopoak ere. Aipatzekoa dira Marta Anguloren (2007) hitzak, non esaten duen kirol federatuetako goi karguetan %7a bakarrik emakumezkoek betetzen dutela.

Kasu horretan argi eta garbi ikusi daiteke, oraindik ere gizartearen ehuneko handi baten pentsamendua guztiz tradizionala dela, esaten dutelako emakumea familiaz arduratu behar dela eta etxeko lanak berak egin behar dituela. Honekin lotuta Hargreaves-ek (1993) dioen bezala, etxeko ardurak nekagarriak izaten dira, eta horregatik jarduera fisikoa emakumeentzako ez dutela gomendatzen diote. Baina badago gizartearen parte bat aldatzen ari dela eta aurrerapausuak ematen ari direla eta “ardura” hauek etxeko, hau da, familiako kide guztien artean banatzen dituztenak eta ez dutenak guztia emakumearen menpe uzten. Honi esker denbora libre gehiago izateko aukera dute, eta zuzendaritza kardua eskatzen dituen orduak betetzeko aukera dute emakumeek.

Berdintasunaren alde egin duten emakume kirolari asko egon izan dira historian zehar, hurrengo lerroetan hauetako baten kasua azaldua dago. Emakumeek kirolean izan duten oztopoen adibideetako bat ikusi daiteke bideoan¹.

1967.urtean Kathrine Switzerren kasua da bideoan agertzen dena. Honek, Bostoneko maratoian, 42 kilometrotako lasterketa, parte hartu zuen lehenengo emakumea izan zen. Lasterketa hau gizonetzko bideratutako lasterketa bat bezala bideratuta izan zen. Kathrinek bertan parte hartu ahal izateko, bere izena “ezkutau” behar izan zuen eta izena ematerako orduan benetako izena jarri beharrean, *KV Switzer* izenarekin izena eman zuen. Lasterketan zehar, ekitaldiko zuzendaria zen Jock Semple-k Kathrineren lasterketa oztopatzen ahalegindu zen, esan bezala, gizonetzko bideratutako lasterketa bat zelako. Gertakari honetan zehar, emakumeak gizon batzuei esker zuzendaria aldentzea lortu zuten eta helmugara heldu zen 4 ordu eta 20 minututan. Hemen argi eta garbi ikusi izan zen, emakumeenganako diskriminazioa eta gizonaren poderioa egon dela. Baina Kathrineren ausardiari esker, emakumeek aurrerapausu handia eman zuten kirol munduan (Kiell, 2007).

Komunikabideek asko laguntzen dute kirol mundua gehiago ezagutzen eta nola ez horrekin batera kirola sustatzeko ezinbesteko baliabideetako bat da gaur egun. Horretaz gain, komunikabideei esker, kirol berri eta minoritarioak direnak ezagutzeko aukera ere ematen du. Eta nola ez hauei esker ere, taldeek babesleak lortzeko oso lagungarria izaten da.

Baina honetaz gain, komunikabideek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko baliabide indartsua da gaur egun, eta horretarako bidea izan beharko litzateke

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=Vff9WbtOgFE> (BBVA, 2020)

(Ávalos, 2016). Telebistan gehienbat gizon kirolariak agertzen dira, eta tarte txiki bat uzten dute emakumeentzako. Badaude egun asko non emakumeak ez dituzten ezta aipatu ere egiten, eta guztia gizonezkoek betetzen duten. Funkhouse-en (1973) hitzak aintzat hartuz, komunikabideek errealitate oker edo partzial bat islatzen dute, emakumeen kirolaren ehuneko txiki bat erakusten dute, eta honetaz baliatzen dira gizonezkoen kirolaren gaurkotasuna adierazteko. Honekin batera errealitate oker bat islatzeaz gain, errealitatea ikusteko modua maneiatzen dute (Herránz, 2006). Presentzia faltaren ondorioz, emakumea ez da baloratua izaten, ez da existitzen (López, 2005).

Telebistaz gain, aldizkarietan ere emakumeen presentzia oso murrizta da, telebistan baino murriztagoa. Kirol aldizkarietako lehenengo orrietan gizonezkoak agertzen dira, ia beti, eta emakumeek oso espazio gutxi okupatzen dute aldizkarian (Torrijo, 2010). Eta hau dena ikusten da patioetan, aurreiritzi guzti hauek izaten dute ohiartzuna eskolako jolas ordutean, mutilek uste dutelako kirola beraiena dela eta patioaren zati haundiena okupatu dezaketeela eta handik sortzen da ikastola honetan egiten duten zerbitzuaren eskaera, berdintasunean jolasteko eskola orduetan.

2.3. Jolas orduak / Patioak

Jolastokiek edo patioek izan duten bilakaera oso nabaria izan da. Gaur egun, hurrengo lerroetan azalduko den bezala, patio hezigarriago batzuk egitera bideratzen dira eskola eta ikastola asko, gune anitzak sortuz. Baina horren aurretik, patioak kirol zehatz batzuk praktikatzeko zentratua zeuden.

Hori egiten hasi aurretik patio edo jolastokia zer den azaltzea ezinbestekoa da. Jolastokia edo patioa, jolasa ematen den lekua izango litzateke, non espazioaren, garaiaren, herriaren arabera bere erabilera aldatu daiteke. Patioan ekintza desberdinak egin daitezke material desberdinak erabiliz, beraz aldakorra izan daiteke (Antolin et al., 2017).

Pellegrini eta Davis-ek (1993) esan bezala, espazio honetan ikasleak “libreak” dira, eta bertan, aukeratzeko dituzten ekintzen artean, egin nahi dutena modu librean hautatzeko aukera dute.

Larraz-en (1988) hitzak aintzat hartuz, berak aldarrikantzen duen hezkuntza prozesua hurrengo printzipio hauetan definitzen du: umeari egiten utzi, eta beharrezkoa denean esku hartu.

Historian zehar ikerlari eta autore desberdinek patioen inguruan azterketa eta ikerketa desberdinak egin izan dituzte, hurrengo lerroetan, laburki urte guzti hauek azalduak egongo dira. Ikerketa desberdinak egin ondoren etapa desberdinak bereizi izan dira. Hurrengo lerroetan azken mendeetako bilakaera islatuta egongo da non 3 etapa bereizi daitezkeen (Garay et al. 2017).

1. Etapa higienista izango litzateke: XIX. mendearen erdikaldeari dagokion etapa da, non gimnasia suediarra eta mugimendu higienistak garatu ziren, zeinek ikasgeletan lantzen zen lan intelektuala eta nekea orekatzeko, konpentsatzeko eremu bezela ikusten zuten. Finean, osasuna mantentzea eta jarrera eta osasun posturala garatu nahi zuten.

XIX. menderaren azken urteetan, jolasa garapen fisikoa garatzeaz gain ikasleen garapen integrala bilatu behar zela konturatu zen, garai horretako ikerlaria izan zen Froebel (Frost, 2012).

2. Etapa, egokitzapenean emandako esperientzien etapa izan zen: 1970 eta 1980. hamarkadetan eman zen. Proiektu pedagogikoak jarraitzeko asmoz, patioak egokitzen hasten dira.

XX. mendean, adibidez, konturatu ziren ikasleen garapen motorra garatzeaz gain, kasu honetan ere, ikasleen aisialdirako espazio bat ere izan behar zela, horrela diote Lafuente eta Horrillo-k (d.g.).

3. Etapa patioen dinamizazio eta animazio esperientzien etapa: XX.mende bukaera eta XXI.mende hasieretan eman zen. Hasiera batean elkarbizitza lantzeko proiektuak egiten ziren, aldiz ondoren eta gaur egun ere, hezkidetzaz gain, genero indarkeriaren aurkako ikuspuntu bat dute. Honekin batera, patioen estandarizazioaren kontra doan mugimendua hasten da, patioen eraldaketarekin esperientzia berriak eta aberatsagoak sortzeko asmoz.

XX. mende bukaeran, Frost-ek (2012) bere testuan esan bezala, patioetan kirol zehatz batzuk gailentzen hasiak ziren, besteak beste, futbola eta saskibaloia

gehienbat. Patioaren espaziorik nagusia bi kirol hauek hartzen zuten, futbolak saskibaloiak baino gehiago, eta honek espazio hauek mutilen gehiengoaren erabilpena ekarri zuen ikastetxe gehienetara.

Ikasleek jolastokia edo patioa denbora librerako erabili ohi izan dute, goian esan bezala, baina espazioaren antolakuntza muga bihurtzen da jarduera librea bultzateko, eta gaur egun ere horretarako erabiltzen dute askok, beste hainbat erabiliren artean. Ikerketa askok esaten dute patioen erabilera horretan mutilek eta neskek gune desberdinetara jo izan dute gehienetan, eta honekin batera, sexismoa dator (Subirats eta Tomé, 2007). Bi autore hauek esan bezala, diskriminazio horren eragile nagusia jolastokiaren diseinua da. Bi autore hauekin jarraituz, patio estandarizatueta mutilek patioaren espazio nagusia okupatzen dute, eta bitartean neskek beste leku batzuetara joan behar izaten dute goian esan bezala, jolas lekuen bordeetara hain zuzen ere.

Badago baieztapen bat esaten duena neskek ez dakitela futboleant jolasten eta horregatik mutil askok ez diete neskei futboleant jolasten uzten (Peña eta Rodríguez, 2002). Baina honetaz gain, "futboleant ondo murgiltzen ez den beste ikasle batzuk ere kirol honetatik kanpo gertzen dira askotan, diskriminatuak, hau da, "onak" direnak soilik jolatu dezaketela" diote ikasle batzuk (Rodríguez eta García, 2009: 66).

Gaur egun, ikastola eta ikastetxe asko eraldaketa bat egitera hausartzen hasiak dira, eta tradizionalak, hau da, futbola edo saskibaloia gailentzen diren jolastokiak alde batera uzten hasi dira. Egun, hezkidetza, bizikidetza, berdintasuna... dira jolastokien helburu nagusiak. Horren adibide nagusi da besteak beste Kurutziaga Ikastolak egindako eraldaketa. Eraldaketa berri hau egitearen arrazoi nagusia ikasleen hezkuntza eta pedagogia hobe bat bilatzeko asmoz egin zen. Kurutziaga ikastolak (2018) esaten duen bezala, pedagogia berritzailearen aspektu garrantzitsuetako bat espazioen berrikuntzak dira. Horretaz gain, ikasleen iritziak eta nahiak kontuan izatea ezinbestekoak direla esaten dute, eta horren arabera sortu dute gaur egun martxan dagoen patioaren eraldaketa berria edota maila batzuetan egin diren eraldaketak ere. Hau egin ahal izateko hausnarketa eta analisis ezinbesteko pausuak direla diote. Autonomia lantzeko espazioak sortzerakoan, bertan modu libre eta askean mugitzeko aukera izango dute, eta bide horretan garapen integrala garatzeko baliagarria izango da (Kurutziaga Ikastola, 2018).

Hautzarotik berdintasunaren ingururko informazioa jasotzen badute, etorkizun batean zor daitezkeen desberdintasunak murrizteko aukera gehiago egongo dira (Kurutziaga Ikastola, 2018).

Patioaren eraldaketa egiteko Kurutziaga Ikastolak pausu batzuk jarraitu zituen, non ikasleen inplikazioa zuzenekoa izan zen:

- 1. Behaketa: Ikastolako jolastoki zaharrera irten eta bertan behaketa bat egin zuten galdeketa bat jarraituz.
- 2. Hausnarketa: Behaketa horretan lortutako informazioaren inguruan hausnartzeko tartea atera zuten.
- 3. Proposamenak: Behatutakoa eta hausnartutakoaren ondoren planoak egiten hasi ziren, jolastoki berri bat sortzeko asmoz.

Pausu huaez gain, ikasleei galdera desberdinak egin zizkieten, besteak beste, non jolasten zuten gehien, mutilek zein espazio hartzen zuten eta neskek zein. Eta azterketa hua egin ondoren beraien ere konturatu ziren mutilek espazioaren zati handi bat hartzen zutela, beraz, lanari ekiten hasi ziren (Kurutziaga Ikastola, 2018).²

Aurreko lerroetan ikusi bezala, jolastokien garapenean ere genero bereizketak egon izan dira. Sexismoa gure eguneroko bizitzetan oso presente dagoen gaia da, eta horren ondorioz, ikasleek hori jolastokietan islatzen dute, Subirats eta Tomé-k esan bezala (2007).

Lehen esan bezala, urte askoan zehar futbol edo saskibaloiz zelaiek patioen zati handi bat hartu izan dute beti edo gehienetan, eta tradizionalki ikusi izan den bezala, gune hauetan gehien egoten diren ikasleak mutilak izaten dira (Larramendi, 2016). Gune hauetan daudenean, estereotipoak handitu egiten dira, estereotipo maskulinoak hain zuzen ere, ahal nola, lehiakortasuna, indarra, trebetasuna... beste batzuren artean, horrela esaten du Lomas-ek (2004).

Honen ondorioz, neskek jolastokiaren bazterretan zati txiki bat hartzen dute, eta bertan joko "pasiboagoak" egiten dituzte, talde txikiak eginez, eta intimoagoak diren jolasetara jolasten dute, eta esan bezala mutilek "ausartagoak" diren jolasetara jolasten dute (Grugeon, 1995).

²

<https://kurutziagaikastola.eus/wp-content/uploads/2018/02/KURUTZIAGA-ALDIZKARIA-ERDERAZ-IN-TERNETERAKO.pdf> (Kurutziaga Ikastola, 2018)

3. HELBURUAK

Lanarekin aurrera jarraituz, ikusi den bezala urte askotan zehar emakumeak mugatuak bizi izan dira, oztopo desberdinak gainditu behar izan baitituzte. Kirola eta jarduera fisikoa praktikatzeko aukera oso berandu lortu dute eta honek eragina du oraindik ere gaur egungo eskola eta ikastoletan. Horregatik behar beharrezkoa da Lehen Hezkuntzako ikasleekin arlo hau lantzea, pertsona guztiek, sexu eta generoak alde batera utzita, aukera berdinak dituztela nahi duten kirola praktikatzeko eta nahi duten momentuan praktikatzeko aukera dutela.

Gizartean oso finkatuta dauden rol eta estereotipoekin bukatzea eta apurtzea ezinbestekoa da, eta esan bezala, hauek apurtzeko gakoa haurrak, ikasleak dira. Ikasleak dira gako nagusia, txikitatik barneratzen duten hori, nagusitan islatuta egongo baita.

Jolas orduetan askotan ematen dira neska eta mutilen arteko desberdintasun kasuak, adibidez: mutilek ez diete neskei futboleko jokatzen uzten, edota esaten da ere dantza ez dela mutilen kirola... Horregatik jolas orduak gune aproposak dira rol eta estereotipo hauekin apurtzeko, eta modu berean jolastokiko guneak, jolas anitz eta desberdinez betetzea aproposa da, jolas, kirol... berriak ezagutzeko, eta ohikoak diren kirolak ez gailentzeko. Horregatik, lan honen helburuak honako hauek izango dira:

1. Neska eta mutilen arteko berdintasunaren alde lan egitea.
2. Aurreiritzien inguruan kontzientzia hartzea.
3. Ikasleei aukera desberdinak eskaintzea eta nahi duten horretan parte hartzeko aukera ematea.
4. Jolastokiaren antolaketa berri bat egitea.
5. Inklusioa sustatzea.

4. METODOA

Metodoa atalean, 5 puntu egongo dira azalduta: testuingurua, non zerbitzua eman den lekua azalduko den...; parte-hartzaileak, bertan zerbitzuan zehar parte hartu duten pertsonen inguruko informazioa emango da; tresnak, atal honetan informazioa jasotzeko zein tresna

erabili diren azalduko dira; prozedura, zerbitzua aurrera eramateko zer nolako prozesu aurrera eraman den azalduta egongo da eta lanaren diseinuaz ere hitz egingo da; eta azkenik analisiaren atala egongo da, non aurretik lortutako informazioa nola analisatuko den azaltzen da.

4.1. Testuingurua

Aurrera eraman den ikaskuntza zerbitzua Lekeition izan da, R. M Azkue Ikastolan hain zuzen ere. Herria txikia da eta horren ondorioz ikastola txikia da, non ikastolako komunitate osoak parte hartzen duen. Komunitatearen parte ikasleak, irakasleak, langileak, edota gurasoak aurkitu ditzakegu. Ikastolak Haur Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntzara arteko ikasleak ditu.

Ikastola kontzertatua da, eta bertan kultura edota maila ekonomiko anitzetako ikasle eta familiak aurki daitezke. Beraien helburua ikasleak berdintasunean, elkarlanean, inklusibotasunean... heztea da. Proiektu bidezko metodologia eramaten dute aurrera eta horren bidez, ikasleek ikaskideekin batera elkarlanean, kooperazioan... lan egiten ikasten dute, bata besteari laguntza eskainiz. Nik egin dudana zerbitzuan hain zuzen ere nesken eta mutilen arteko desberdintasuna txikitzeko baliagarria izan da.

Beharrak dituzten ikasleei baliabide asko eskaintzen dizkiete, baina horretaz gain, beste ikasle guztientzako ere zerbitzuak dituzte, jantokia, eskola orduz kanpoko ekintzak...

Ikastolan bertan proiektu desberdinak dituzte martxak, hurrengo hauek besteak beste: Zerbikas, Kiva, Hizpro... Ikastola eta ikastola komunitatea hobetzeko asmoz erabiltzen dituztenak.

4.mailako praktikaldiak ikastolan bertan egiteko aukera izan nuen, eta tarte horretan bertako irakasleekin zerbitzua adosteko aukera izan nuen. Adostasun batera heldu ondoren, praktikaldia bukatu ondoren borondatez Lekeitiora joaten ibili izan naiz 2 astetan zehar, zerbitzua bertan egiteko.

Zerbitzu hau sortzearen ideia Ikastolako Gorputz Hezkuntzako irakasleak eskaini zidan, berak eta beste irakasle askok uste baitzuten jolas orduaren antolaketa ez zela egokia, alde batetik ikasleek ez zutelako antolaketa ia parterik hartzen, irakasle askok ez

zutelako beraien ardura ganoraz betetzen... eta bestetik berdintasunaren lanketa egiteko gune aproposa iruditu zitzaielako. Ideia hauek izanda, zuzendaritzarekin harremanetan jarri ginen eta proposamena azaldu genion, eta horren ondoren lanari ekiten hasi ginen. Beraz proiektu edo zerbitzu berri honekin, ikasle zein irakasleen inplikazioa handitzearekin batera neska eta mutilen arteko berdintasunaren alde lan egitea izan da helburuetako bat.

4.2. Parte-hartzaileak

Zerbitzuan zehar parte hartu duten ikasleei dagokionean, 5 eta 6.mailako ikasleei bideratutako zerbitzua izan da. Covid-19a dela eta jolas orduetako ordutegiak antolatu behar izan dituzte eta txanda desberdinak sortu. Horregatik, orain txanda bakoitzean ume kopuru gutxiago daude, guztia zaindu eta gainbegiratzeaz arduratzen direnak.

5. Mailako 36 ikaslek (19 mutil eta 17 neska) eta 6.mailako 28 ikaslek (17 mutil eta 11 neska) hartu dute parte. Maila bakoitzean neskak eta mutilak nahastuta daude. Horrez gain, ikasle atzerritarrak ere egon dira, beraz, toki desberdinetako ikasleekin egoteko aukera izan dut.

Irakasleei dagokionean, egun bakoitzean irakasle desberdinak aduratu izan dira jolas orduko zaintzaz. Egun bakoitzean 3 irakasle arduratu dira patioaz, eta hauek gune desberdinak izan dituzte zaintzeko. Irakasle batzuk egun bat baino gehiagotan jaisten dira, beste batzuk aldiz egun baten bakarrik.

4.3. Tresnak

Informazioa jasotzeko eguneroko bat erabili dut, non egunero gertatu dena kontatu dudana, ondoren bertatik informazio baliagarria eskuratu ahal izateko. Egunerokoan bizi izan ditudan anekdotak, nire emozioak, hobetu beharreko aspektuak, izan ditudan arazoak... agertzen dira, hau erabiliz informazio baliagarri bat eskuratu ahal izateko.

Egunerokoan fokoa leku desberdintan jarri dut, alde batetik, eguna nola joan den ikusteko baliagarria izan zait; bestetik, ikasle talde bakoitza non ibili den gehien ere ikusi dut,

hau da, neskak zein gunetan ematen duten denbora gehiago, eta mutilek zeinetan; ikasleen arteko harremanak ikusteko ere baliagarria izan zait.

Egunerokoaz gain, behaketaren bitartez ere jaso dut informazioa. Azken finean, praktikaldia bertan egin nuenez, ikasleak ezagutzen ditut, beraz, gutxi gora behera badakit zer gustatu ahal zaien eta zer ez. Horretaz gain, jolas orduak ikusi ondoren, eta beraien erabilera behatu ondoren, txoko desberdinak proposatu ditut, metodo antzeko bat erabiliz. Hau da, jolas desberdinak proposatzea, eta ikasleek egokitzen zaizkien txokoetatik nahi dutena aukeratzea. Behaketa egiteko item desberdinak (*Eranskinak 1*) erabili dira. Item hauek, fokoa non jarri dudan ikusteko erabiliak izan dira. Behaketa hau egun bakoitzaren bukaeran egin da, eta aste bukaeran batz besteko bat egin da.

Ebaluazio tresnei dagokionean, ikasle bakoitzari astearen bukaeran autoebaluazio bat (*Eranskinak 2*) pasatu zaio, non beraien sentimenduak, emozioak... ikusteko baliagarria izan den, eta horretaz gain guneak ea egokiak iruditu zaizkien, edota ze hobekuntza egin daitezkeen idazteko aukera izan dute. Horrekin batera, zein gune izan den beraien gustokoena ere agertzen da. Ebaluazio honi esker, informazio baliagarria eskuratu dut. Honekin batera, beraien interesak kontuan hartu dira, eta bertatik tiratu eta gustuko duten horretan fijatzeke aukera ere izan dut. Eta etorkizun batean ikastolan antolaketa hau erabili nahi baldin badute, baliagarria izango zaie informazio hori eskuratzea.

Ikasleen autoebaluazioaz gain, nik nire burua ebaluatzeko autoebaluazio bat (*Eranskinak 3*) sortu dut, errubrika bat eginez, zerbitzuan lortu nahi diren helburuak lortu diren ikusteko baliagarria izan zait besteak beste. Horrez gain, ikasleei galdetu zaien bezala, nire buruari errespetuaren, sentimenduen... inguruko galderak ere egin dizkiot.

4.4. Prozedura

R.M Azkue ikastola aurretik ezagutzen nuen, bertan praktikaldia egin dudalako aurten, beraz, gune aproposa iruditu zait zerbitzua egiteko. Hasiera batean bertako irakasle batekin Aitorrekin, hitz egin nuen eta berak zein behar zituzten plazaratu zidan, eta jolas orduen antolaketa bat gai interesgarria izan zitekeela esan zidan. Hori entzun ondoren, lanari ekiten hasi ginen, eta zuzendaritzakoekin ere harremanetan jarri ginen, besteak beste nire plana zein izango zen azaltzeko eta ikastolan duela urte batzuk egindako behaketa baten inguruko informazio baliagarria jasotzeko.

Aitorrek, esan zidan, bera DBHko jolas orduetaz arduratzen zela, beraz beste irakasle batekin jarri behar izan nintzen harremanetan, kasu honetan Jonekin, aurretik berekin praktikaldian egoteko aurkera ere izan nuen, beraz, elkar ezagutzen genuen. Jon zuzendaritza taldean sartuta baitago, beraz, Lehen Hezkuntzako jolas orduaz arduratzen da bera, eta oso ondo ezagutzen du antolaketa. Apirilaren 27an berarekin ikastolan bertan elkartu ondoren, nire proposamenari buelta batzuk eman genizkion eta proposamen berri eta hobe bat sortu genuen bion artean.

Jonek ere esan zidan, patioak antolaketa berri bat behar zuela, eta ez hori bakarrik, irakasleen inplikazioa handiagoa izan behar zela, horregatik, proposamenean irakasle bakoitzari gune batzuk esleitzen zaizkio, non hauen ardura hartu behar duten.

Esku hartzearen iraupena 2 astetakoak izan da, aste bakoitzean, maila bakoitzari gune desberdinak esleitu zaizkio, besteak beste lehenengo astean 5.mailako ikasleak kanpoko partean dauden guneak izan dituzte eskuragarri, eta 6.mailako ikasleek frontoia eta mendia; bigarren astean aldiz, aldaketa egin dute eta 5.mailakoek frontoia eta mendia erabiltzeko aukera izan dute eta 6.mailakoek kanpoko partean dauden guneak. Jolas orduen iraupena 30 minutukoa denez, esan bezala zerbitzua 2 astetakoak izan da, 10 ordu egin ahal izateko. Covid-19ak muga asko ezarri ditut, besteak beste taldeak txikiagoak izatea edota, ikasleak ezin izan dira jolas orduan modu librean guneen artean mugitu, zehaztutako guneetan ibili dira.

Azken finean, egindako zerbitzua ikastolako irakasle eta zuzendaritza taldeak detektatutako behar bati aurre egiteko esku-hartze bat da, non ikastolako jolas orduaren antolaketa berri bat egiten den. Antolaketa berri honetan 6 guneetan bereiztu dira patioa (1. gunea: Mendia; 2.gunea: Frontoia; 3. gunea: Mahaiak; 4. gunea: Zapitxo; 5. gunea: Arku tiro + Estruktura; 6. gunea: Ortua), eta gune bakoitzean jarduera / ekintza bat egiteko aukera izan dute ikasleek. Gune hauetako jarduerak inklusiboak, berdintasunaren aldekoak... dira, lanean zehar ikusi bezela, patioetan ematen diren generoen arteko desberdintasunak edota bazterketak ekiditeko ahalegina egiteko.

Gune bakoitzean irakasle arduradun bat eta ikasle arduradunak egon dira, materiala prestatzeaz eta gunea antolatzeaz arduratu direnak, bertako arauak betetzen direla ziurtatzearekin batera.

Berriz ere Tapiaren (2010) hitzak aintzat hartuz, 7 fase aurkitu daitezkeela dio: Zirriborro bat sortzea; Gizartean dauden erakunde desberdinekin harremanak eraikitzea; Planifikazioa; Prestakuntza; Aurrera eramatea; Itxiera; Ebaluazioa.

1. *Zirriborro bat sortu:*

Tapiak (2010) esaten duenaren arabera, ikaskuntza zerbitzu guztiak ideia batean oinarritzen dira, guztion interesekoa den ideia bat. Egingo dena, noiz eta non egingo den zehazten joan behar da, horretarako zuzendaritzarekin harremanetan jarriko dira. Fase hau bukatzeko eta hurrengora salto egiteko, zein arazori egingo dioten aurre argi eta garbi izan beharko dute, eta arazoari aurre egiten dioten bitartean zein ikaskuntza bereganatuko dituzten ere zehaztuko dituzte.

2. *Gizartean dauden erakunde desberdinekin harremanak eraiki:*

Tapiaren (2010) hitzak jarraituz, ikaskuntza zerbitzua egin ahal izateko, ezinbestekoak izaten dira ikasleen inguruan aurkitu daitezkeen erakundeekin, taldeekin... harremanetan jartzea. Aurrera eramane nahi duten horren arabera aukeratu beharko dute zein erakunderekin jarriko diren harremanetan. Nire kasuan, praktikaldia zerbitzua egiteko une aproposa zela ikusi nuen, bertan egon zitezkeen beharrei aurre egiteko, proposamenak eskainiz. Horregatik bertako irakasle batekin jarri nintzen harremanetan, nire praktiketako irakaslearekin hain zuzen ere, eta berarekin hitz egin ondoren eta zeuden beharrak ikusi ondoren "jolas orduaren antolaketa" bat egitea adostu genuen.

3. *Prestakuntza:*

Eta honetan ikasleen motibazioa kontuan hartzea ezinbestekoa izango da, beraien ideiak kontuan hartuz eta parte hartze aktibo bat sustatuz. Proiektua diseinatzen hasiko dira fase honetan (Tapi, 2010).

4. *Planifikazioa:*

Proiektua aurrera eramateko eskema bat sortuko dute, non landuko dena, zer nolako helburu bete nahi izango dituzten... agertuko den alde batetik, eta bestetik zein ordutegi izango duten, zein material erabiliko duten... agertuko den. Garrantzitsua da baita ere bukaerarako proiektuari izen nagusi bat ezarrita egotea (Tapi, 2010). Nik eskema bat egin dut, non jolas orduko gune desberdinak azaltzen diren eta gune bakoitzean zein jarduera egingo den azaltzen den. Horretaz gain arauak ere finkatuta daude, eta ikasle edota irakasleek izan beharreko ardurak zeintzuk izango diren ere azaltzen dira. Gune bakoitzean esan bezala, zein jarduera egingo den agertzen

denez, bertan erabiliko den materiala azaltzea ezinbestekoa dela uste dut beraz, hori ere bertan dago.

5. *Aurrera eraman:*

Tapiaren (2010) hitzak haintzat hartuz, planifikatuta duten hori aurrera eramaten hasiko dira, eta normala den bezela, espero ez dituzten gertakari asko gertatuko zaizkie eta hauei aurre egiten saiatu beharko dira. Horregatik, hausnarketarako eta autoebaluazioarako tarteak izatea ezinbestekoa da, txarto irten den horren inguruan hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko. Fasea ixteko, landu duten guztia agertzen den materiala prestatuta izan beharko dute. Nire kasuan, hausnarketarako eguneroko bat egingo dut, non egunean gertatutakoaren inguruan hitz egingo dudan eta, egun bakoitzean hausnarketa bat osatuko dudan. Hausnarketa horren bitartez, arazoei nola aurre egin diegan edo egin beharko nien ikusteko aukera izango dut, zer egin dudan ondo eta zer dudan hobetzeko. Horretaz gain, ikasleek aste bakoitzaren bukaeran autoebaluazio bat egingo dute, eta bertatik informazio baliagarria eskuratu ahal izango dut.

6. *Itxiera:*

Fase honetan, etapan zehar landutakoa, ikasitakoa, ikusitakoa, izandako gatazkak... kontuan hartuko dituzte eta haien inguruan hausnartu beharko dute, balorazio orokor bat eginez (Tapia, 2010). Zerbitzua eskaini ondoren, hau da behin zerbitzua amaitu dudanean, balorazio orokor bat egin dut, esan bezala egindako prozesuaz hausnartzeko eta hobetu beharrekoaz ohartarazteko.

7. *Ebaluazioa:*

Azkenik, Tapiaren (2010) hitzekin jarraituz, aurreko fasearekin lotura du, baina kasu honetan bukaerako ebaluazio bat egin zuten. Proiektu osoa azaltzen den lan bat prestatua izan dute, ikusi izan dutenaren inguruna, ikasitakoaren inguruan... Bukatzeko nire autoebaluazio bat egitea pentsatu dut, alde batetik, ikasleen parte hartzea nolako izan den baloratzeko; bestetik, proposatutako guneak aproposak izan diren ikusteko... Aurretik esan bezala, aste bakoitzaren bukaeran autoebaluazio bat egin da.

4.4.1. Lanaren diseinua

Jolas orduaren antolaketa hau egin ahal izateko, behaketaren bitartez, ikastolan bertan egin zen diagnosi baten bitartez... lortutako informazioarekin egin dut. Ikastolak gaur egun badauka jolas orduaren antolaketa bat, baina bertako irakasle batekin hitz egin ondoren, konturatu ginen patioak beste antolaketa bat behar zuela, irakasle zein ikasleak kontuan hartzen zituena, beraiek ere antolaketan zein prestakuntza lanetan parte hartuz.

Horretaz gain, inklusioa eta berdintasuna kontuan izatea ezinbesteko lana da, horregatik aukeratutako guneetan bi alderdi hauek lantzea eta errespetatzea beharrezko lana izan da, eta horren ardura nagusia ikasleek izan dute.

Beste alde batetik, arau batzuk ezartzea ere garrantzitsua dela ikusi dut, aurretik ikastolak ere bazituenez jarrita, hildo beretik jarraitzea pentsatu dut, azken finean ikasleek arau batzuk behar dituztelako dena hankaz gora ez jartzeko, eta aurretik esandako bi alderdiak, inklusioa eta berdintasuna, lantzeko bidea errezteko ezinbestekoak izan dira. Aurtengo egoera dela eta, Covid-19a, arau gehiago sartu izan dira, osasuna bermatu ahal izateko.

Hurrengo proposamena 2 astetako luzeera izan du, eta egun horietan 5 eta 6. mailako ikasleek guneak txandakatu dituzte. Lehenengo astean, 5.mailakoek kanpoko parte guztia eskuragarri izan dute, hau da, 3, 4, 5 eta 6 guneak. Aldiz, 6.mailakoek frontoia eta mendia izan dute beraiantzat. Bigarren astean kontrakoa geratu da, 5.mailakoek frontoia eta mendia izan dute, eta 6.mailakoek kanpoko parte guztia.

Eguraldi txarra egiten duen egunetarako "B plana" sortu behar zen, eta kasu honetan, frontoian bakarrik egon litzateke aterpea, beraz, gune batzuk "kendu" dira, 1 (mendia), 3 (mahaiak), 4 (zapitxo), 5 (kiro gelaren aurrean) eta 6 (ortua). Esan bezala, frontoian aterpea dagoenez, gune hau dagoen bezala mantendu da. Kentzen diren gune horietako ikasleak gelan geratu dira, eta bertan mahai jolas desberdinetara jolasteko aukera izan dute, 3 marran, xakea, kartak...

1 GUNEA (Mendia)

Mendian ikasleek harrapaketan jolasteko aukera izan dute. Harrapaketan jolastu nahi ez duenak, lasai egoteko ere aprobeztatu dezake.

Irudia: 1.Gunea (Mendia)



2. GUNEA (Frontoia)

Frontoia 2 zatitan banandu da

- Esku pilotan jolasteko gunea egon da.
- Hockey egiteko gunea ere egon da.

Materiala:

- Esku pilotako pilota.
- Hockeyko stick-ak, porteriak, pelota eta petoak.

3. GUNEA (Mahaiak)

Lasai egoteko txokoa izan da hau, eta bertan mahai jolasak izan dituzte:

- 3 marran
- Xakea

Materiala:

- 3 marran
- Xakea

Irudia: 3.Gunea (Mahaiak)



4. GUNEA (Zapitxo)

Zapitxora jolasteko gunea izan da. Ikasle kopuruaren arabera, zapitxo kooperatiboa egin ahal izan dute, nahi baldin bazuten.

Materiala:

- Zapi bat

Irudia: 4.Gunea (Zapitxo):



5. GUNEA (arku tiro + estruktura)

Arku tiroa erabiltzeko gunea izan da. Kontuz ibili behar izan dira, beste ikasleak ez jotzeko. Materiala zaindu behar zuten, geziak ataskatuta ez geratzeko.

Arku tiroaz gain, estrukturan jolasteko aukera ere izan dute, bertan oreka, indarra... landuz.

Materiala:

- Arkuak
- Diana

Irudia: 5.Gunea (Estruktura):



6. GUNEA (Hortua)

Gune honetan hortuan lan egiteko aukera izan dute, edota jolasteko aukera baita ere. zonalde batean esan bezala hortuko lanekin ibiltzeko gune bat dago, baina aldi berean badago beste alde bat jolasteko gunea dena. Beraz, ikasleek nahi zuten gunera joan ahal dira.

Materiala: Hortuan bertan badago eskuragarri materiala, beraz, ez da kirol gelatik ezer hartu behar.

Irudia: 6.Gunea (Hortua):



Irudia: 6.Gunea (Hortua):



4.4.1.1. Arduren banaketa

Gune bakoitzaren ardura, ikasle zein irakasleek hartu dute. Gune bakoitzean dauden ikasleen artean 2 ikasle aukeratu dira, eta hauek materiala hartzeaz, materiala zaintzeaz edota bukaeran materiala behar den lekura eramateaz arduratu dira. Honetaz gain, gune horretako arauak betetzen direla ere ziurtatu behar ziren, guztien artean elkarlanean jolastu ahal izateko, eta ondo pasatzeko.

Ikasleek momenturen batean irakasle baten laguntza behar zutela ikusten bazuten, gune horretan egon den irakaslearengana jo ahal izan dute laguntza eske. Esan bezala, gune bakoitzean ikasle arduradunak egoteaz gain, irakasle arduradun bat ere egon da. Honen betebeharra ikasleak ondo dabiltzala, arduraz dabiltzala, errezpetuz jokutzen dabiltzala... ziurtatzea izan da. Ikasle arduradunei ere laguntza eskaini die, baina esan bezala materialaren ardura, eta txokoen ardura ikasleena izan da. Honek ez du esan nahi, irakasleak ez zirenik gune horretaz arduratu behar, uneoro gunean zehar ibili dira, baina baita ere ikasleei askatasuna eman zaie.

Ikasleen inplikazioari esker, beraien arteko komunikazioa, ardura, inplikazioa... landu da. Zerbait betetzen ez dela ikusten dutenean, horri aurre egiten ahalegindu behar ziren.

Arduren banaketa txandakatzen joan da, ikasle zein irakasleena. Honela ikasle gehiagok gunearen ardura izateko aukera izan dute, eta horrela goian aipatutako alderdiak jorratzeko aukera izan dute.

Jolastokira 3 irakasle bajatu dira, eta patioko guneak 3 irakasle hauen artean banatu dituzte horrela: irakasle bat frontoiaz arduratu da; beste irakasle bat kanpoko gunearen zati batetaz arduratu da, kasu honetan, kirol gela aurreko zatiaz, mendiaz, eta komunetan ikasleak ez ibiltzeaz ere arduratu da; 3. irakaslea lasai egoteko mahaiez eta ortuaz arduratu da. Ikusi daitekeen bezala, irakasle batzuk gune baten baino gehiagotan egon dira zaintza egiten.

Irakasleak, jolastokia bukatu ondoren, gune batzuk itxi dituzte, hortua eta mendia besteak beste. Zabalik geratzen badira edonor sartu daitekeelako bertara.

4.4.1.2. Jolas orduko arau orokorrak

Aurtengo egoera berezia dela eta (Covid-19) jolas orduko arauak moldatu behar izan dira, baina Covid-19-az gain badaude beste hainbat eta hainbat arau mantendu behar izan direnak, besteak beste inklusioa, berdintasuna, errespetua, mugak... Ikasleen elkarbizitza hobetze aldera sortutako arauak dira asko, guztien artean jolas ordua aurrera eramateko arauak. Horrez gain, ikastolako materiala eta guneak zaintzeko ere eskatzen zaie, azken finean ez daude beraien etxean eta ezin dute edonola materiala erabili, beraien atzetik beste ikasle askok gune eta material berdinak erabili baitituzte. (*Eranskinak 4*)

4.5. Analisia

Lan honetan analisia eta interpretazioa egiteko, esan bezala, egunerokoaren bitartez, behaketaren bitartez edota egindako ebaluazioak erabilia lortutako informazioa erabili da. Ebaluaziorako errubrika erabilia atera da informazioa, non grafiko batzuk lortu ditudan ikasleen emaitzak erabilia; egunerokoan aldiz, jolas orduetan bizi izandakoarekin, ikusitakoarekin, entzundakoarekin... lortu da informazioa eta ondoren sistema kategoriala erabiliz ordenatu dut; eta aldiz, behaketan item desberdinak erabilia. Lehenengo taulan egunerokoarekin lotutako sistema kategoriala agertzen da:

1.taula: sistema kategoriala

<i>Dimentsioa</i>	<i>Kategoriak</i>	<i>Azpikategoriak</i>
Sentimenduak	Urduritasuna	
	Poza	
	Kexak	
	Tristura	
Guneak	Azalpenak	
	Antolamendua	Berdintasuna
	Materiala	Zaintza
	Arauak	
	Ez dira erabili	
	Jolas berria	

	Gune aldaketa	Azalpena
	Baimena	
Planifikazioa	Faktore erreztatzaileak	
	Faktore oztopatzaileak	

Iturria: Norberak egina

5. EMAITZAK

Atal honetan hainbat tresna besteak beste, egunerokoa, ebaluazioa eta behaketa erabili dira bertatik lortutako emaitzak adierazteko:

5.1. Espazioaren banaketa

Bigarren taulan ikusi bezala, orokorrean neskak eta mutilak nahastuak egon dira gune guztietan edo gehienetan. Taula honetan batzbesteko bat da, non egun guztiak kontuan hartu diren, eta ikusi daiteke gehien erabili den espazioa frontoia izan dela:

2. taula: Behaketarako itemak

ESPAZIOAREN BANAKETA:			
ITEM-AK	NESKA KOPURUA	MUTIL KOPURUA	GUZTIRA IKASLE KOPURUA
1. Gunean (Mendia)	6	5	11
2. Gunea (Frontoia)	7	12	19
3. Gunea (Mahaiak)	2	3	5
4. Gunea	5	9	14


(Zapitxo)			
5. Gunea (Arku tiro + estruktura)	2	2	4
6. Gunea (Ortua)	6	5	11

2.Taulan ikusi daitekeen bezala ikasleak gune guztietan egon dira, eta horrez gain, gune batean izan ezik, orokorrean beste gune guztietan neskak eta mutilak batera jolastu dute. Horretaz gain, gehien erabili diren espazioak frontoia eta zapitxoaren gunea izan dira. Bi guneetan neska zein mutilen kopurua nabaria dela ikusi daiteke, nire behaketaren arabera. Beraz, datu hauekin antzeman daiteke neska eta mutilek berdintasunean jolasteko gai direla. Frontoian hockey-ra edota esku pilotako pilotarekin jolasten zuten. Nik proposatutako jolasak proposamenak dira, hasiera batean esku pilotan haritzeko gunea proposatzen zen baina ikasleek jolas libre batera jolasteko erabakia hartu zuten, guztiz errespetagarria.

Honekin lotuta ikasleei pasatutako ebaluazioaren arabera, non beraien senttimenduak, zein gunetan pasatu duten denbora gehien, proposamenak... agertzen diren, hurrengo grafiko hauek atera ditut:

Zein da gehien gustatu zaidan gunea?


67 respuestas



1. Irudia: Gehien gustatu zaizkien guneak

Ze gunetan pasatu dut denbora gehien?

67 respuestas



2. irudia: Denbora gehien pasatu duten gunea

Gehien erabili duten gunea frontoia eta mendia izan dira, eta gehien gustatu zaiena, frontoia eta bigarrena hortua. Nire behaketa eta 1. eta 2. grafiko hauek alderatuta, ikusi daiteke gune batzuek datu berdinak edo antzekoak plazaratzen dituztela, besteak beste frontoia (%44,8) izan dela gehien gustatu zaien gunea, eta horregatik denbora gehien (%50,7) bertan pasatu dutela; bestalde, harritzekoa da, nola batzuei gehien gustatu zaien gunea mendia (%22,4) izan den arren bertan ez dutela denbora (%7,5) asko pasatu. Horretaz gain, nahiz eta nik zapitxoaren gunean ikasle asko ikusi, ez da gehien gustatu zaien gunea (%10,4) eta ezta denbora gehien pasatu duten gunea (%6). Behaketa taulan esan bezala momentuoro neskak eta mutilak batera jolasten ibili direnez, grafikoan neska eta mutilen erantzunak bateratuta daude.

5.2. Jolas orduaren antolaketa berria

Bestalde, ikasleei galdetu zaie ea jolas orduaren antolaketa berria gustatu zaien edo aproposa iruditzen zaien, ikasle askok proposamen berria aproposa dela esan dute, baina badaude beste batzuk ideia berriak sarut dituztenak: "Ez LH-ekoak gure guneetan ibiltzen dira eta gu haien guneetara urbiltzen garenean bronka itzela izaten dugu".

Erantzun horretan ikusi daitekeen bezala, antzeman daiteke irakasleek ez dutela behar bezela beraien zaintza bete, azken finean Covid-19a dela eta ikasleek mailaka banatuak dituzte guneak eta gune horietatik nahi dutenera joan daitezke, baina ezin dira beste mailakoen guneetara joan, “burbuilak” mantendu behar direlako. Beraz, irakasleak bere lana behar bezela egin ezker ez ziren horrelakoak gertatuko, hau da, ikasleak egokitzen zaizkien guneetan ibiliko liratezke.

Beste erantzun batzuk honako hauek izan dira: “Alde batetik bai, izan ere burbuilak zaintzen direlako, baina beste aldetik ez txoko gehiagotan egon nahi izaten dugulako”.

Honako erantzun honetan ikusi daitekeen bezala goian azaldutako bi alderdiak ikusten dira bertan, alde batetik aipatzen du nola burbuilak zaindu behar diren, baina aldi berean beste guneetan egotea ere gustatuko litzaiokeela.

Horrez gain batek baino gehiagok esan du jolas orduaren denbora luzeagoa izan beharko litzatekeela, ordu batekoa 30 minutukoa izan beharrean. Aspektu hau ikastolaren esku dagoenez nik ezin izan dut ezer aldatu hori konpontzeko.

5.3. Guneen antolaketa

Hurrengo lerroetan ikus daitezke ikasleen esaldiak eta guneen antolaketaren inguruan uste dutena azaltzen da: “Bai, baina gustatuko litzaidake frontoian egoteaz gain beste leku batzuetan egotea”; “Batzuetan gure burbuila apurtzen zen, beste pertsona batzuk sartzen zirelako”; “ Ez zeren eta batzuetan monitoreak falta dira”...

Kasu honetan ere goian azaldutakoa errepikatzen da, maila desberdinetako ikasleak nahastu egiten direla, burbuilak apurtuz. Baina horretaz gain, badago bat frontoian jolas gehiago egotea proposatzen duena. Kontua da frontoian bi ekintza egiteko lekua dagoela, baina hockeya edo esku pilota bezelako kirolek espazioaren zati handi bat hartzen dute, eta horren ondorioz ez dago espazio nahikorik beste jolas edo ekintza batzuk sartzeko.

Bertan hezitzaile edo irakasleen gaia ere agertzen da, non esaten den gune batzuetan monitoreak falta direla. 6 gune daude eta 3 irakasle daudenez irakasle bakoitzak 2 gune ditu zaintzeko, beraz, batzuetan gertatu daiteke gune batzuk hezitzaile edo irakasle gabe egotea.

5.4. Ikasleen proposamenak

Azkenik, ikasleei proposamenen inguruan galdetzerakoan hurrengo lerroetan ikusi daitezke jasotako erantzunetako batzuk: “Porteriak nahi ditugu denok, eta ez diguzue nahi duguna ematen.”; “Porteriak ipini!!!!”; “Porteriak eskatzen ditugu denok eta ez ditugu oraindik”; “Bai hockeyrako beste stik bat”...

Ikasleen gehiengoak futbolean jolasteko porteriak eskatzen dituzte. Erantzun hauetan ikusi daiteke, oraindik gaur egun ere, nahiz eta jolas orduaren proposamen berriak eskaini ikasle batzueri gehien gustatzen zaiena futbola dela. Porteriak jarri ezker, atzera pausu bat iizango litzatekeela ondorioztatu daiteke, hau da, patioaren zatirik handiena futbola izango litzatekeela, eta bertan neska eta mutilen arteko desberdintasunak areagotzeko gunea izango litzatekeela.

5.5. Nire autoebaluazioa

Nire autoebaluazioari dagokionean, errubrikari esker nire burua ebaluatzeko aukera izan dut, eta aste bakoitzaren bukaeran horren inguruan hausnartzeko eta hobekuntzak egiteko balio izan dit. Ikasleen iritziak kontuan izanda konturatu naiz orokorrean guneak aproposak izan direla eta ikasleak gustura egon direla guneetan.

Beste alde batetik, helburuen lorpenerako baliagarria ere izan da errubrika, azken finean helbururenbat lehenengo astean lortzen ez bada, edo ez badago guztiz lortua, bigarren asteari begira hobekuntzak egiteko baliagarria izan da, eta esan dezaket lehenengo astean helburu ia guztiak beteta egon direla. Lantzeko zailena aurreiritzien inguruan kontzientzia hartzearen helburua izan da, azken finean ikasleek aurreiritzi batzuk nahiko barneratuta dituzte, eta egun batetik bestera hauek burutik kentzea oso zaila izan da, baina bigarren astean hauen inguruan kontzientzia hartzea lortu da.

Ikasleen parte hartzea ebaluatzeko ere balio izan dit, eta orokorrean esan dezaket, eta beraiek ere esan izan duten bezala, oso ona izan da, azken finean jolas orduan parte hartzea sustatzea errezagoa izaten da, eta hare gehiago berain gustukoak diren ekintzak egiten badira.

Esan bezala jolas orduaren antolaketaren helburu nagusia, antolaketa berri bat proposatzeaz gain, neska eta mutilen arteko berdintasuna sustatzea izan da, eta horrekin batera ikasleen behar eta nahiak asetzeko baliagarria ere izan da, beraien nahiak kontuan hartu izan direlako eta neska eta mutilen arteko berdintasuna sustatu delako.

5.6. Egunerokoaren sistema kategoriala

Egunerokoaren bitartez sistema kategorial bat egitea lortu dut, non dimentsio desberdinak atera zaizkidan eta dimentsio hauen barruan kategoriak eta azpikategoriak atera zaizkidan. Alde batetik dimentsioei erreparatuz gero, 3 dimentsio ikusi daitezke: sentimenduak, guneak eta planifikazioa. Sentimenduei dagokionean, izenak esaten duen bezala 2 aste hauetan bizi izandako sentimenduen inguruan hitz egiten da, ikasleenak zein nireak. 4 sentimendu mota ikusi daitezke, urudritasuna, lehenengo egunean sentitu nuen sentimendua da, nahiz eta ikastola ezagutu beste alderdi batean beraiekin jardutearen urduritasuna; poza, ikasleak asko poztu ziren ni ikusteaz; kexak, DBHko ikasleak beraien gunean ikusi zituztenean kexatu ziren, baina normala den jarrera da eta horrelako sentimenduen bidez ere ikasi egiten da, azken finean beste gune batzuetan egotera moldatu behar izan baitzuten, egoera berri batera; tristura, azken egunean sentitutako sentimendua izan zen tristura, honekin interpretatu daiteke antolaketa berriarekin gustura ibili zirela.

Hurrengo dimentsioari dagokionean, guneen inguruko dimentsioa izango litzateke, non kategoria desberdinak ikusi daitezkeen. Arauen inguruko kategoriari dagokionean eta egunerokoan idatzita dagoen bezala, hasiera batean ezarritako arauak askotan ez dira nahikoak izaten eta behin praktikan jartzen denean konturatzeko gara gehiago sartu beharko liratekeela. Kasu honetan horretaz konturatu giñen, hau da gune batzuetan arau zehatzagoak sartu behar zirela, beraz, hori egin behar izan genuen eta geroztik aurrera hockeyko txokoak hobeto funtzionatu zuen.

Materialaren kategoriari dagokionean, zaintza dago azpikategoria bezala, eta kasu honetan egun batean gertatutakoaren inguruan hitz egiten da, non ikasleek materialaren zaintzaren inguruko hausnarketa bat egin behar izan zuten. Materiala askotan edonola erabiltzera ohituak daude, azaldu behar izan genien materiala guztiona dela eta batzuek materiala apurtu ezker ez dugula besteok material hori erabiltzeko aukerarik izango. Hori

esan ondoren, ikasleek horren inguruan hausnartu zuten eta materiala hobeto zaintzen hasi ziren.

Beste kategoria baten baimena agertzen da, eta bertan ikasleek baimena eskatzeko edo ez eskatzeko duten ohituren inguruan hitz egiten da. Konturatu nintzen badaudela ikasle batzuk edozertarako baimena eskatzen dutenak, komunera joateko, hortura sartzeko... baina aldiz, kasu honetan mutilek, ez dutela baimena eskatzeko ohiturarik. Futboleko jolasten hasi ziren baimenik eskatu gabe, eta soberan zekiten ez zutela hori egin.

Azken dimentsioa erreparatuz gero, planifikazioaren inguruko dimentsioa agertzen da, non faktore erreztatzaileen edota faktore oztopatzaileen inguruan hitz egiten den. Faktore erreztatzaileei daokionean irakasle, zuzendari, zein ikastola osoak emandako tratua izango litzateke. Kasu honetan ikastolak, bere osotasunean, baliabideak eskaini zizkidan nire zerbitzua aurrera eramateko, eta eskainitako tratua oso ona izan zen. Honen aurrean, emaitza bezela, zerbitzu egoki eta beraientzako baliagarria izan den antolamendu bat egitea lortu izan dut.

6. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Ikerketa honi esker ondorio orokor bezela esan dezaket, gradu amaierako lan honetan zehar ideia, kontzeptu, errealitate... desberdinak ikasteko eta ikusteko aukera izan dudala. Horrez gain, ikasitako kontzeptu berrien artean, batzuk sakonago aztertzeko edota hauekin lan egiteko aukera ere izan dut, besteak beste ikaskuntza zerbitzuan. Ikaskuntza zerbitzua hasiera batean ez nekien oso ongi zer zen, hitza ikusita zerbait suposatu nezakeen baina, ikaskuntza zerbitzuaren inguruan informazioa eskuratu ondoren, praktikara ere eraman dut, Lekeitioko Azkue ikastolan lanean zehar ikusi den bezala. Aranburuzabala, Cerrillok eta Tellok (2015) esan bezala ikaskuntza zerbitzuari esker hiritarrak hezteko baliagarria izan da, zeintzuk gizartea birmoldatzeko gai izan behar diren eta gizartean dauden arazoei aurre egin behar dieten.

Ikaskuntza zerbitzua, marko teorikoan esan bezala, hezkuntza formal zein informalean emateko aukera dago (Puig eta Palos, 2006), eta kasu honetan horrela izan da, hezkuntza informalago batean, azken finean ikasleak ez baitira ikasgela baten barruan sartuta egon.

Zerbitzua egiteko pausuak Tapiak (2010) proposatu bezala eman dira: 1. Zirriborro bat sortu; 2. Gizartean dauden erakunde desberdinekin harremanak eraiki; 3. Prestakuntza; 4. Planifikazioa; 5. Aurrera eraman; 6. Itxiera; 7. Ebaluazioa. Pausu hauek ikaskuntza zerbitzu on bat egiteko baliagarriak izan zaizkit, ikastolako antolaketa berri bat sortzeko aukera emanez.

Egindako proposamenaren balorazioa aztertzerakoan ordorioztatu dezaket egindako proposamena lortu nahi ziren helburuak lantzeko baliagarria izan dela, besteak beste neska eta mutilen arteko desberdintasuna baztertzeko eta murrizteko, edota inklusioa lantzeko. Horrez gain bide batez ikasleek kontzientzia hartzeko eta gai honen inguruan hausnartzeko baliagarria izan zaie.

Ikusi bezala, ikastola edota ikastetxeetako patio edota jolastokietan desberdintasunak oraindik ere nabariak dira, horregatik, patioen antolaketa bat beharrezkoa edo gomendagarria da, desberdintasun hauek murrizteko ahalegina egiteko. Beste alde batetik, ikusteko aukera izan dut nola ikasle batzuek oso barneratua duten neska eta mutilen arteko berdintasunaren ideia, baina aldi berean beste batzuk oraindik, ez dakit etxean jasotzen dutenagatik den, baina gehiago kostatzen zaie berdintasun horren alde egitea goiko datuetan ikusi daitekeen bezala. Askotan esaldi solteak egiten dituzte, besteak beste: “mutilak indartsuagoak gara neskek baino”, “neskak kirolean ez zarete gu bezain onak”... Hemen argi eta garbi ikusten da García eta Asinsek (1994) esandako estereotipoen eragina. Honen aurrean badaude neska asko aurre egiten dietenak eta horri erantzuteko gai direnak, baina beste batzuk aldiz albo batera uzten dituzte eta beraienera jarraitzen dute.

7. taulan ikusi daitekeen bezala, gaur egun oraindik ere ikasleek futbola eskatzen dute, nahiz eta patioan beste jolas edo ekintza batzuk praktikatzeko aukera izan. Horretaz gain, 2.taulan ikusi bezala, Azkue Ikastolan neska eta mutilek batera ibiltzeko joera dutela erakutsi dute, horren ondorioz da ikastolan transmititu izan zaien balorea, hau da, berdintasunaren trataeraren balorea. Eta horren islada ikasleek beraiek ere adierazten dute 6.taulan ikusi daitekeen moduan.

Pellegrini eta Davis-ek (1993) esan bezala, patioaren antolaketa berrian ikasleek eskuragarri dituzten guneen artean nahi duten horretan modu librean ibili daitezke: egun batean gertatu zen bezala, 6.mailako ikasleek esku pilotan jolastu beharrez beste jolas batean ibiltzea erabaki zutela, horren aurrean ez genien ezer esan, azken finean nahi duten hori egiteko aukera zutelako.

Larraz-en (1988) hitzak aintzat hartuta eta bere printzipioarekin jarraituta, ikasleei momentuoro “nahi “ zutena egiten utzi behar diegu, baina momentu batzuetan eskua sartu behar izan dugu, arazoan aurrean, besteak beste.

Ondorio bezala, emaitzak aztertu ondoren hurrengo ondorio hauek atara ditut:

- Proposatutako antolaketa berriak berdintasunaren alde lan egiteko baliagarria izan dela.
- Antolaketa berriak, inklusioa sustatu duela.
- Badaudela ikasle batzuk, nahiz eta beste ekintza eta jolas berri batzuk proposatuak izan, futboleko jolasten jarraitu nahi dutela.
- Orokorren neska eta mutilek, modu orekatuan jolasteko aukera izan dutela.

6.1. Helburuen lorpena

Lanarean hasieran ezarritako helburuei erreparatuz, esan dezaket orokorrean bete direla; neska eta mutilen arteko berdintasunaren alde lan egin dela; horrez gain, aurreiritzien inguruan kontzientzia hartzea zailagoa izan da betetzea, beraz, hurrengo baterako helburu honi buelta batzuk eman beharko zitzaizkion; antolaketa berri honi esker neska zein mutilek, hau da, ikasleek orokorrean, aukera berdina izan dituzten nahi duten horretan parte hartzeko, betiere egokitzen zitzaien guneetan; helburu nagusia izan den jolastokiaren antolaketa berri bat egitea zuzen zuzenean lortu da, alderdi batzuk hobetzeko egongo direla argi dago, baina egin ahal izan dudana guztia egin dut, eta antolaketa berri bat eskaintzea lortu dudala uste dut; eta azkenik, inklusioa ere bete betean landu da.

6.2. Mugak eta hobekuntzarako proposamenak

Mugen eta hobekuntzen inguruan hitz egiten hasita, lehenik eta behin hobekuntza bezala nire buruarekiko konfiantza maila handitzea izango litzateke. Aurretik nahiz eta esku hartzeak eginda izan, lan honetarako egin dudanean urduri sentitu naiz hasieran, GrAL baten susposatzen duen lan karga guztiatik besteak beste.

Beste alde batetik, berdintasunaren inguruko ideia orokor bat nuen arren, honen inguruan pixkat bat aztertzeko aukera izan dut, eta lan honi esker gaia gehiago ezagutu ahal

izan dut, baina ohartarazi nahiz, gai honetan aditua izateko askoz gehiago aztertu behar den gai bat dela. Interesa gehiago pizteko balio izan dit lan honek beste aspekturen artean. Honetaz gain, ikaskuntza-zerbitzua metodologia zer den ikasteko eta lehenengo pertsonan aurrera eramateko aukera izan dut baita ere.

Praktikaldia gune aproposa izan zitekeen zerbitzua egiteko, baina etxera bueltatzen nintzenean oso nekatuta heltzen nintzen eta ez nuen ia ezertarako gogorik ezta astirik izaten, egun osoa kanpoan ematen bainuen, eta etxera heltzean, entrenatzeaz gain, praktiketako lana ere izaten nuelako, beraz, erabaki bat hartu nuen, Apirila eta Maiatzean zehar Gradu Amaierako lan honekin 100% ibiltzea.

Badaude beste alderdi batzuk hobetu beharrekoak, besteak beste tutorearekiko harremana. Harremana orokorrean ona izan da, baina nire aldetik konstanteago izatea hobetuko nuke, hau da, uneoro harremanetan egotea hobetu beharreko aspektu bat iruditzen zait, nire berri izatea, onerako zein txarrerako, eta ez bakarrik lanak bidaltzerako orduan tutorearekin harremanetan jartzea.

Marko teorikoa osatzerako orduan, plagio bat zer den eta zer ez den argi izatea ezinbestekoa iruditzen zait, askotan ez bait dakigu ondo plagio bat zer den. Bigarren aldian egin nuenean lana hobea zen eta iturri desberdinetatik lortutako informazioari esker marko teoriko hobe eta sakonago bat egitea lortu nuen.

Aurrera eramandako jolas orduaren proposamena eta egindako lana Azkue ikastolan gustatu zaie, eta esan didatenaren arabera, bertan erabilgarria egingo zaien antolaketa bat da, beraz, hemendik aurrera, eta hurrengo ikasturteari begira, egindako antolaketa berria kontuan hartuko dutela esan didate, honek asko pozten eta motibatzen nau. Azken finean, egindako lan guztiak zerbaitetarako balio izan duela ikusteak asko pozten nau.

6.3 Azken hausnarketa

Azken hausnarketa bezala esan dezaket egindako lanarekin gustura gelditu naizela. Alderdi desberdinen inguruan informazioa eskuratu ondoren, gizartean pil-pilean dagoen gai garrantzitsu baten inguruan hausnartzeko baliagarria ere izan zait, emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren inguruan hain zuzen ere. Askotan entzun edota irakurri izan dut telebistan, aldizkarietan edota liburuetan bi genero hauen arteko desberdintasunaren

inguruan, baina oraingoan sakonago aztertzerakoan eta emakumeen prozesua aztertu ondoren, benetan konturatu naiz desberdintasunaz, eta emakumeen sufritu behar izan dituzten, sufritu behar dituzten, eta zoritxarrez sufrituko dituzten oztopoez. Honen aurrean lanean zehar esan eta ikusi bezala, aldaketa bat beharrezkoa dela, eta aldaketa hau ikastetxeetatik hasia ezinbesteko lana dela iruditzen zait.

Lan honi esker, konturatu naiz lan handia dagoela oraindik egiteko neska eta mutilen berdintasun oso batera heltzeko. Askotan telebistan edota aldizkarietan ez dute horrela islatzen, eta horren ondorioz gizartea iruzurtuta bizi da. Beraz, hemendik aurrera nire partetik, berdintasunera heltzeko ahal dudana egingo dut, besteak beste etorkizuneko irakasle izango naizen heinean gai hau sustatuz, uste baitut ikaslengandik hasi behar dela aldaketa.

Beste alde batetik, zerbitzuari esker nik sortutako esku hartze bat ikastola batean aurrera eramateko aukera izatea oso baliagarria izan zait, bai ikasketa aldetik zein pertsona moduan, bizipen berriak bizi ahal izan ditudalako. Zerbitzuan zehar egoera desberdinek ikasketa prozesuan eragina izan dute onerako zein txarrerako, eta azken proiektura heltzeko bidea izan dira. Ikastolako kideek, zuzendari, irakasle zein ikasleek bidea erraztu didate eta hori eskertzekoa da.

Bide honetan, eta azken hausnarketa honekin bukatzeko ikastolaz gain Mariateri esker lanean eragin zuzena izan du, berari esker, bai egindako zuzenketei esker, zalantzak argitzeari esker, edota bere jakinduria nirekin partekatzeari esker lana aurrera eraman hal izan dut, eta bion arten lan polita egiteko aukera izan dugu, beraz, ez dut uste nire lana bakarrik denik, atzetik jende askok parte hartu duen lan bat da, eta guztiek jarri dute beraien aletxoak nik lan hau aurrera atera ahal izateko.

7. ERREFERENTZIA / BIBLIOGRAFIA

- Alfaro, E. (2004). El talento psicomotor y las mujeres en el deporte de alta competición. *Revista de educación*, 335, 127-151.
- Angulo, M. (2007). *Las imágenes de las deportistas en los medios de comunicación*. Dirección General de Deportes.
- Antolín, M., Gil, V., Olaizola, M., Navarro, V., Iglesias, I., eta Rodríguez, A. et al. (2017). Elkartoki. https://wearetipi.co/public/docs/patioa_denona_da.pdf -tik berreskuratua.
- Aramburuzabala, P.; Cerrillo, R. eta Tello, I. (2015). Aprendizaje-servicio: una propuesta metodológica para la introducción de la sostenibilidad curricular en la universidad. *Revista de curriculum y formación del profesorado*, 19(1), 79-95.
- Barbero, J. I. (1993). *Materiales de sociología del deporte*. La Piqueta.
- Battle, R. (2013). Aprendizaje-servicio. Hemendik berreskuratua: <https://roserbattle.net/aprendizaje-servicio/>
- Cuadrado, I. (1998). La mujer en la educación física y el deporte. *Puertas a la lectura*. file:///C:/Users/usuario/Downloads/Dialnet-LaMujerEnLaEducacionFisicaYEIDeporte-1071158.pdf
- Domínguez, B. M. (2014). La educación hoy el valor de mañana: Aprendizaje-Servicio y Educación Inclusiva. *Educación y futuro: revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, 30, 183-208.
- Duran, A. (1988). De puertas a dentro. Instituto de la Mujer, Ministerio de Asuntos Sociales.
- Frost, J. (2012). Evolution of American Playgrounds. *Scholarpedia*, 7(12), 30423. Austin (Texas). Hemendik berreskuratua: http://www.scholarpedia.org/article/Evolution_of_American_Playgrounds
- Funkhouser, G. R. (1973). The issues of the sixties: An exploratory study in the dynamics of public opinion. *Public Opinion Quarterly*, 37, 62-75.

- Garay, B., Vizcarra, M. T. eta Ugalde, A. I. (2017). Los recreos, laboratorios para la construcción social de la masculinidad hegemónica. *Teoría de la Educación; Revista Interuniversitaria*, 29(2), 185-209.
- García, M. eta Asins, M. (1994). La coeducación en Educación Física. U.A.B. Institut de Ciències de l'Educació. Cuadernos para la Coeducación nº7.
- García, T., Moran, M. eta Mayor, D. (2012) Una vinculación teoría práctica en un espacio inclusivo: escuela-comunidad-Universidad. *Revista de Educación inclusiva*, 5, 107-120.
- González Gavaldón, B. G. (1999). Los estereotipos como factor de socialización en el género. *Comunicar*, 12, 76-88.
- Grugeon, E. (1995). Implicaciones del género en la cultura del patio de recreo. In M. Hammersley eta P. Woods (koord.) *Género, cultura y etnia en la escuela. Informes etnográficos*, (23-47 or.). Paidós
- Hargreaves, J. (1993). Promesa y problemas en el ocio y los deportes femeninos. *Materiales de sociología del deporte*, 109-132.
- Herránz, Y. (2006). Igualdad bajo sospecha. El poder transformador de la educación. Narcea.
- Kiell, P. J. (2007). Running in Literature: a guide for scholars, readers, runners, joggers, and dreamers. *AMAA Journal*, 20 (2), Fall 2007, p. 20. *Gale Academic OneFile*, Accessed 17 Feb. 2021
- Lafuente, A., eta Horrillo, P. (d.g.) Como intervenir un patio escolar. La aventura de aprender. Hemendik berreskuratua: <http://laaventuradeaprender.intef.es/documents/10184/67760/como-intervenir-un-patio-escolar>
- Larramendi, I. (2016). Eskoletako jolastokiak eta genero-rolak: Diseinuaren eragina generonortasunaren eraikuntzan. *Aldiri Arkitektura eta Abar*, 3(27), 18-21. <http://www.unibertsitatea.net/otarra/ingeniaritza-eta>

teknologia1/arkitektura/27_larramendi_eskoletako-jolastokiak-etagenero/at_download/file.

Larraz, B. A. (1988). El acondicionamiento de zonas de juegos para niños. *Apunts Educació Física i Esports*, 13, 10-18.

Lomas, Carlos. (2004). Los chicos también lloran. Paidós Ibérica.

López, P. (2005). Representación de género en los medios informativos de radio y televisión. MInstituto Oficial de Radio y Televisión.

Mendía, R. eta Moreno, V. (2010). Guía Zerbikas 3: Aprendizaje y Servicio Solidario, una estrategia para la inclusión social. Fundación Zerbikas. Hemendik berreskuratua: <http://www.zerbikas.es/guias/es/3.pdf>

Mercier, R. eta Werther, P. (2001). Changing the androcentric world of sport. *Canadian Journal for Women in Coaching*, 1(6). Hemendik berreskuratua: <https://coach.ca/WOMEN/e/journal/july2001/index.htm>

Núñez, T., eta Míguez, A. (2017). Re-creando imaginarios. Actas "cine, deporte y género. Seminario internacional. Hemendik berreskuratua: <https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/74910/Cine%2c%20Deporte%20y%20Genero.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Pellegrini, A. D., eta Davis, P. L. (1993). Relation between children's playground and classroom behavior. *British Journal of educational psychology*, 63(1), 88-95.or.

Peña, J. eta Rodríguez, M. (2002) Identidades esquemáticas de género en la escuela: a propósito del primer aniversario de la muerte de Bourdieu. *Teoría de la Educación*, 14, 235-263.

Puig, J. M. eta Palos, J. (2006). Rasgos pedagógicos del aprendizaje-servicio. *Cuadernos de pedagogía*, 357, 60-63. Hemendik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1970468>

Rodríguez, H. eta García, A. (2009) Asimilación de códigos de género en las actividades del recreo escolar. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 23 (1), 59-72.

- Romero, S. (2008). Influencia del patrimonio y de los medios de comunicación en la discriminación del deporte de élite femenino. *Tándem*, 28, 39-53.
- Rubio, L. (2007). Aprendizaje y servicio solidario. Zerbikas fundazioa, 0. Zerbikas Fundazioa.
- Subirats, M. eta Tomé, A. (2007). *Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación*. Octaedro.
- Tapia, M. N. (2016). Inserción curricular del aprendizaje-servicio en la Educación Superior. CLAYSS.
- Tapia, M. N. (2010). La propuesta pedagógica del "Aprendizaje-Servicio": una perspectiva latinoamericana. *Tzhoecoen aldizkari zientifikoa*, 5, 23-43.
- Torrijo, J. L. R. (2010). La construcción de las noticias deportivas desde una mirada androcéntrica. De la invisibilidad a los estereotipos de la mujer deportista. *Vivat academia*, 113, 122-136.
- Vázquez Gómez, B. (2002). La mujer en ámbitos competitivos: el ámbito deportivo. *Faísca: Revista de altas capacidades*, 9, 56-69.
- Vega, L. eta Ávalos, M. A. (2016). La presencia de la mujer deportista en la televisión. *Feminismo/s*, 27, 165-175.

8. ERANSKINAK

- Eranskinak 1:

BEHAKETARAKO ITEMAK:

Eguna:			
ESPAZIOAREN BANAKETA:			
ITEM-AK	NESKA KOPURUA	MUTIL KOPURUA	GUZTIRA IKASLE KOPURUA
1. Gunean (Mendia)			
2. Gunea (Frontoia)			
3. Gunea (Mahaiak)			
4. Gunea (Zapitxo)			
5. Gunea (Arku tiro + estuktura)			
6. Gunea (Ortua)			

- Eranskinak 2:

AUTOEBALUAZIOA (Ikasleena):

<https://docs.google.com/forms/d/1mBARMMSJ7nNmxSsmIokjKoZWeOSaDWKhdkE XHwOHaUg/edit>

- Eranskinak 3:

AUTOEBALUAZIOA	
Ikasleak edota irakasleak errespetuz tratatu ditut?	
Nola sentitu naiz bi aste hauetan zehar?	
Zerbitzuaren helburuak lortu dira?: 1. Neska eta mutilen arteko berdintasunaren alde lan egitea. 2. Aurreiritzien inguruan kontzientzia hartzea. 3. Ikasleei aukera desberdinak eskaintzea eta nahi duten horretan parte hartzeko aukera ematea. 4. Jolastokiaren antolaketa berri bat egitea. 5. Inklusioa sustatzea.	
Ikasleen behar eta nahietara egokitutako antolamendua izan da?	
Guneak aproposak izan dira?	
Zerbitzuan zehar izandako arazoei behar bezala aurre egin diet?	
Zer hobetu dezaket?	
Antolaketa eta koordinazioa egokia izan da?	
Nolakoa izan da ikasleen parte hartzea?	

JOLAS ORDUKO ARAU OROKORRAK:

1. Covid-19 arauak:

- **Jolas-ordu aurreko saioaren irakasleak 5 min. arinago bukatuko du bere saioa eta ikasleak patioa aterako ditu.** Irakasle honekin hamaiketako jango dute, bakoitza bere eremuan, babes distantzia zainduz.
- **Tarte horretan, egun horretako irakasle-ikasle arduradunek jolas guneak antolatu eta prestatuko dituzte.** Jolas-ordu bukaeran gunea jaso eta jolas-ordu material gelara eraman beharko dute dena.
- **Maila bakoitzak bere gunea izango du jolasteko eta lasai egoteko.** Ezin izango da beraz, beste gune batean egon eta beste gela edo mailakoekin nahastu.
- **Jolasterakoan eta jolasera sartzeko itxaroten edo lasai hizketan daudenean, ikasleek, babes neurriak zaindu beharko dituzte.** Hauen artean: Aho-maskara erabiltzea (irakasle arduradunak arnas momentua adierazi arte), kontaktu egoerak saihestuko dira jolasean zein lasai tarteetan.
- **Asteazkenetan frontoiko gunea gorputz hezkuntza egiteko erabiliko da Lekeitio egoera gorrian dagoen egunetan.** Beraz, frontoiko jolas orduko taldeak gelan geratu beharko dira asteazken horietan edota beraien mailakoei egokitu zaien beste gune batera joan izan ahalko dira.
- **Eguraldi txarra dagoen egunetan, patio aldeko ikasleak beraien gela barruan geratu beharko dira eta frontoi azpian dauden guneak irtengo dira bakarrik. Asteazken euritsuetan gelan geratu beharko dira ikasle guztiak.** Egun horietan, geletan jolas materiala izango dute prest zesto berezietan eta irakasle arduradunak barruan geratzen diren ikasleen portaera zainduko dituzte (babes neurriak zaindu, materiala egoki erabiltzen dela zaintzea, zabor potoak erabili, lasai ibili eta hitz egin...). Ikasle hauek ikastetxe barruko komunak erabili ahal izango dituzte.

2. **Jolas orduan ikasleak ez dira ikastolako eremutik aterako gurasoen baimen bereziaz ez bada.** Baimena izanez gero, arduradunari erakutsiko zaio eta honek gertaera orrian jasoko du. Ez da baimenik emango ikas-materiala edo kirol-arropak etxera hartzen joateko.

3. **Gorputz hezkuntza ikastolatik kanpo dutenek 20min. aurretik irteteko baimena izango dute kiroldegira, Karraspiora edo plazara heltzeko.**

4. **Jolastokiko instalazioak eta kirol materiala era egokian erabiliko dira.** Jolas orduan ezin izango dira bizikleta, skate eta era guztietako patinik erabili. Materiala batzeko eta

jasotzeko orduan, ikasle-irakasle arduradunei laguntza emango diote beraien lana oztopatu barik.

- 6. Ez dira onartuko ikasleen arteko irainak, borrokak eta jarrera bortitzak.** Ikasle nagusiek arduraz jokatuko dute txikiagoen aurrean, beti ere eredu onak erakutsiz (indarkeria barik jokoan, elkarri min egin barik, zabor potoak erabiliz, jolas eremuak errespetatuz).
- 7. Jolaslekuak eta komunak ahalik eta txukunen mantenduko dira** eta hondakinak dagokien ontzira botako dira.
- 8. Jolas garaian ikasleren batek min hartuz gero** zaintzen ari den irakasleari honen berri emango zaio.
- 9. Irakasle arduradunak gertaera orria (*Erasnkinak 5*) beteko du hurrengo kasuetan** (covid-19 babes neurriak zaintzen ez denean, ikasle bat baimen barik ikastola eremutik irten denean, harreman arazoetan, komunen erabilera desegokietan, txukuntasuna zaintzen ez denean, materiala txarto erabiltzen denean, mugikorra erabiltzen denean.....).
- 10. Jolas orduan mugikorra ez da erabiliko dei garrantzitsuak egiteko ez bada.**

- *Erasnkinak 5:*

GERTAERA ORRIA
Eguna:
Ikaslearen izena:
Gertarea:
Erabakitakoa: